

## 1 JARDUERA

Bi zerrenda daukazue hemen. Batean materiari dagozkion helburu orokorrak daude; eta bestean, berriz, oinarrizko kompetentziak. Azter itzazue biak eta ikusi nola islatzen diren kompetentziak materiaren helburuetan.

### HELBURU OROKORRAK

- Produktu estetikoek gizakien bizitzan eta euskal herritarrengan eta herri guztietan duten eta izan duten funtzioa eta garrantzia ulertzea, arte-korronteen, moden eta gustuen bilakaeraz eta aberastasunaz jabetzea, munduari eta pertsoneri buruzko balioak eta ikuspegiak osatzen zer zeregin duten ulertzeko.
- Arte-gertaerak herrien eta kulturen ondarearen eta nortasunaren zati direla aintzat hartzea, arte-gertaeren adierazpenak interesatzea, zaintzen eta berritzen laguntzeko, eta kultura arteko trukeak, elkarrizketak eta arte-esperientzia partekatutako aberasgarriak direla jabetzea.
- Arte- eta estetika-produktuak sortzea, emozioak eta sentimenduak, bizipenak eta ideiak adierazteko, bai eta natur guneko eta kultura-inguruneko espazioak, objektuak eta elementuak irudikatzea ere, komunikatzeko, gogoeta kritikoa egiteko eta autokonfiantza izateko ahalmena garatzen laguntzeko.
- Arte-hizkuntzen teknika, baliabide eta arau nagusien oinarrizko ezagutza eta jakintza izatea. Teknologiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan erabiltzeko, bai eta ikusizko kulturako lanetan eta adierazpenetan identifikatzeko eta baloratzeko ere.
- Pentsamendu-trebetasunez baliatzea: ikerketa, irudimena, ikusizko baliabideen bilaketa eta manipulazio sortzailea... ikuspuntu estetikoa eskuratuz, ideiak berriz egiteko, inguruko objektuak eraldatzeko, hainbat konponbide proposatzeko eta egoerak problema bihurtzeko.
- Diseinuarekin, ikusizko euskarria duten informazio- eta komunikazio-bitartekoekin eta objektuak eta formak teknikoki irudikatze sistemekin lotura duten gure kulturako ekoizpen artistiko-estetikoko eremuak ezagutzea eta haien berariazko kodeetara hurbiltzea, kritikoki baloratzeko, eta adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabiltzeko.
- Plastikaren hizkuntzak eta ikusizko hizkuntzak beste hizkuntza batzuekin eta ezagutzaren beste eremuekin dituzten harremanak ulertzea, integratzea eta arte-ekoizpen konplexuak pentsatzeko eta garatzeko erabiltzea.
- Norberaren eta ingurunean nagusi diren adierazpen estetikoetatik desberdinak errespetatzea eta aintzat hartzea, prozesu erreflexibo eta kritikoen bitartez, estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditzeko, erantzunak ematekoan erregistroak ugaritzeko eta malgutasun-, elkartasun-, intereseta tolerantzia-jarrerak garatzeko.
- Banaka edo taldean arte-proiektu baten plangintza egitea eta proiektua egiteko prozesuari buruz gogoeta egitea, lortu nahi denaren intentzioak, faseen azterketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz jabetzeko. Lan partekatua arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziak errespetatuz bere gain hartzea.



kulturako lanetan eta adierazpenetan identifikatzeko eta baloratzeko ere.								
- Pentsamendu-trebetasunez baliatzea: ikerketa, irudimena, ikusizko baliabideen bilaketa eta manipulazio sortzailea... ikuspuntu estetikoa eskuratuz, ideiak berriz egiteko, inguruko objektuak eraldatzeko, hainbat konponbide proposatzeko eta egoerak problema bihurtzeko.								
- Diseinuarekin, ikusizko euskarria duten informazio- eta komunikazio-bitartekoekin eta objektuak eta formak teknikoki irudikatzen dituzten gure kulturako ekoizpen artistiko-estetikoko eremuak ezagutzea eta haien berriak kodeetara hurbiltzea, kritikoki baloratzeko, eta adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabiltzeko.								
- Plastikaren hizkuntzak eta ikusizko hizkuntzak beste hizkuntza batzuekin eta ezagutzaren beste eremuekin dituzten harremanak ulertzea, integratzea eta arte-ekoizpen konplexuak pentsatzeko eta garatzeko erabiltzea.								
- Norberaren eta ingurunean nagusi diren adierazpen estetikoetatik desberdinak errespetatzea eta aintzat hartzea, prozesu erreflexibo eta kritikoen bitartez, estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditzeko, erantzunak ematekoan erregistroak ugaritzeko eta malgutasun-, elkartasun-, intereseta tolerantzia-jarrerak garatzeko.								
- Banaka edo taldean arte-proiektu baten plangintza egitea eta proiektua egiteko prozesuari buruz gogoeta egitea, lortu nahi denaren intentzioak, faseen azterketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz jabetzeko. Lan partekatua arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziaz errespetatuz bere gain hartzea.								